

2010eko laugarren hiruhilekoan ezkontzen %72 zibilak izan ziren

Ezkontzen kopurua %9,6 jaitsi eta ezkontideen adinak igoz darrai

2010eko laugarren hiruhilekoan, ezkontza zibilak gehitu egin ziren aurreko urteko aldi beraren aldean; 2009ko %68tik 2010eko %72ra, Eustaten datuen arabera. Urteko azken hiletan udakoetan (uztail, abuztu, irailean) baino ezkontza zibil proportzio handiagoa izaten da; udan %45 kanonikoak izan ziren eta %55 zibilak.

Euskal AEko ezkontzak: Urrian, azaroan eta abenduan 1.588 ezkontza izan ziren Euskal AEn, aurreko urteko hiruhileko berean baino %9,6 gutxiago. Bizkaian 798, Gipuzkoan 523 eta Araban 228. Bizilekua gure erkidegokotik kanpo dutenen artean 39 ezkontza egin ziren.

Bizilekua Euskal AEn duten 1.538 gizonetzko eta 1.548 emakumezko ezkondu ziren. Horietatik 1.343 senarrentzat (%87,3), lehen ezkontza izan zen; 6 alargun eta 189 dibortziatu berriro ezkondu ziren. Lehenengo aldiz ezkonduetako emakumeen portzentajea pixka bat handiagoa izan zen gizonena baino; 1.368 izan ziren (%88,4); alargunak 10 eta dibortziatuak 170.

Atzerriko naziotasuna duten ezkontide kopurua goraka

2010eko 4. hiruhilekoan gizon ezkonberrien %10 eta emakume ezkonberrien %14 atzerritarak ziren; aurreko urtean, %9 eta %12.

Ezkontzak ezkontideek eztei-egunean zuten adinaren arabera banatuz gero, 2010eko laugarren hiruhilekoan senarren arteko %84,9k 30 urtetik gora zituzten; emazteen artean, berriz, %74,6k. Ehuneko biak aurreko urteko hiruhileko berean izandakoak baino handiagoak dira, aldi hartan %83,7 eta %73,7 izan baitziren.


Aurrera doa, beraz, ezkontzeko adina atzeratzeko joera; 2010. urtean senarren %82,9 eta emazteen %70,1 30 urte edo gehiagorekin ezkondu ziren; 2009.ean baino ehuneko altuagoak, %81,2 eta %67,1 izan baitziren.

2010. urteko behin-behinekoan, Euskal AEn bizi zirenen ezkontza kopurua aurreko urtekoa baino %3,2 txikiagoa izan da. Ezkontza zibilen proportzioak ehuneko 5 puntutan gainditu zuen 2009koa; 2010ean ezkontza guztien %66 izan zen.

	2010ko 4. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2010ko 3. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2009ko 4. hiruhilekoa)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	1.588	100,0	2.847	100,0	1.757	100,0
Kanonikoak	444	28,0	1.287	45,2	560	31,9
Zibilak	1.144	72,0	1.560	54,8	1.197	68,1
SENARGAI AK	1.538	100,0	2.758	100,0	1.687	100,0
Ezkongabeak	1.343	87,3	2.528	91,7	1.499	88,9
Alargunak	6	0,4	11	0,4	12	0,7
Dibortziatuak	189	12,3	219	7,9	176	10,4
EMAZTEGAI AK	1.548	100,0	2.795	100,0	1.710	100,0
Ezkongabeak	1.368	88,4	2.584	92,5	1.509	88,2
Alargunak	10	0,6	9	0,3	12	0,7
Dibortziatuak	170	11,0	202	7,2	189	11,1

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Ezkontzen Estatistika

1. grafikoa: Ezkontzen hilez hileko mugimendua oinarria (100= b.b.)



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Ezkontzen Estatistika

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945-01 75 49 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko EZKONTZEN ESTATISTIKARI buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko EZKONTZEN ESTATISTIKARI buruzko datu-bankua](#)